



EBAZPENA Hezkuntzako sailburuordearena, zeinaren bidez deialdia egiten baitzaie Hezkuntza Sailaren mende dauden eta unibertsitatetik kanpoko irakaskuntza (heziketa-zikloak salbu) ematen duten ikastetxeei prestakuntza jarduerak egin ditzaten 2023-2024 ikasturtean, ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruko berrikuntza-proiektuei lotuta.

Hezkuntza Sailak irakasleen prestakuntza sustatzen du, irakasle bakoitzaren gaitasun-profila osatzen laguntzeko. Gizarte eleanitz batean, irakasleen lanbideak aktibatu behar duen gaitasunetako bat da curriculumeko hizkuntza bakoitzean komunikatzeko gaitasuna, bi hizkuntza koofizialetan eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean.

Hizkuntza desberdinetako komunikazioa funtsezkoa da egungo gizartearen garapenean. Europako Hezkuntza Esparruaren ideian, hizkuntza batean baino gehiagotan komunikatzeak hezkuntza eta prestakuntza mugek oztopatzea saihesten du, eta nazioartekotzea eta mugikortasuna bultzatzen ditu, beste kultura batzuk deskubritzea ahalbidetzeaz gain, ikasleen ikuspegiak zabalduz.

Curriculum berriak, gure ikasleek hezkuntza-etapa guztietan irteera-profilean bizitzeko eta etengabe ikasteko behar dituzten gaitasunei buruz Europako Kontseiluak emandako gomendioak jasoz, hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna nahiz gaitasun eleanitza garatzeko beharra ezartzen du. Bi gaitasunak eskuratzeko, beharrezkoa da ahoz, idatziz edo zeinuen bidez modu koherente eta egokian jardutea, hainbat esparru eta testuingurutan eta helburu desberdinekin. Horrek esan nahi du komunikaziorako eta ikaskuntzarako bi hizkuntza ofizialak erabiltzea, euskara beti ardatz izanik, atzerriko hizkuntzaren bat barne. Komunikazio-dimentsioa ez ezik, ikasleak beren ingurunean dagoen hizkuntza- eta kultura-aniztasuna ezagutzera, ulertzera eta errespetatzera eramaten dituzten alderdi historikoak eta kulturartekoak ere biltzen ditu.

Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailari dagokio hizkuntzen tratamendu integratua eta integrala sustatzea, komunikazio-gaitasun eleanitzuna garatze aldera. Hori guztia, Euskararen Erabilera Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen uztailaren 11ko 138/1983 Dekretuan jasotako xedapenak betez, hizkuntzaren arloko euskal araudiaren esparruan. Horrela, Hezkuntza Sailak hizkuntzen didaktikan irakasleek duten gaitasuna hobetzea sustatzen du, eta antolaketa-bideak ezartzen ditu hizkuntzak irakasten dituzten irakasleek modu koordinatuan lan egin dezaten, hizkuntzen tratamendu integratuaren ikuspegia aplikatuz; beharrezkoa den prestakuntza ematea, hizkuntzaz kanpoko arlo eta ikasgaietako irakasleek hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna modu integralean eta sistematizatuan landu dezaten, eta ikastetxe guztiek hizkuntza-proiektua egin eta dinamiza dezaten ziurtatzea.

Hori horrela izanik, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuan eta gainerako xedapen aplikagarrietan ezarritakoaren arabera, honako hau

**EBAZTEN DUT:****1. artikulua. – Deialdiaren xedea**

Deialdi honen xedea da Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoei hizkuntza-proiektu eleaniztunak sustatzeko baliabideak ematea, 2023/2024 ikasturterako honako modalitate hauetako batean:

A Modalitatea: Ikastetxeko hizkuntza-proiektua, hizkuntza komunikaziorako kompetentzia zein kompetentzia eleaniztuna, garatzen dituen hizkuntzen tratamendu integral eta integratuaren bidez, bi hizkuntza koofizialak eta atzerriko hizkuntzak kontuan hartuta. (I. eranskina).

B Modalitatea: Ikastetxeko hizkuntza-proiektua, hizkuntza komunikaziorako kompetentzia zein kompetentzia eleaniztuna, garatzen dituen atzerriko hizkuntzetako curriculum-arloen irakaskuntzan ekimen berritzaileetan sakonduko duena, CLIL metodologiaren bidez, diziplinarteko proiektuen bidez, eremuka lanean.... (I. eranskina).

Bi modalitateetan proiektuek ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren garapenari lotutako prestakuntza-jarduerak barne hartu behar dituzte.

Deialdi honi lotutako prestakuntzaren eta horrekin lotutako proiektuen helburua da hezkuntza-komunitate bakoitzak, ikasleen komunikazio-kompetentzia eta testuinguru soziolinguistikoa ezagututa, bere hizkuntza-proiektua diseinatu eta garatea. Horretarako, berrikuntza didaktiko-metodologikoak abiaraziko ditu, hizkuntza komunikaziorako kompetentzia zein kompetentzia eleaniztatu garatzeko; berrikuntza horiek, hala, hezkuntza-zentroko hizkuntza guztiak aintzat hartuko ditu — bi hizkuntza koofizialak eta atzerriko hizkuntzak— ikasleak ahalik eta gehien garatu ditzan hizkuntza-trebetasunak. Ekintza horiek lagungarri izan behar dute hezkuntza-zentroaren hizkuntza-proiektua lantzeko eta garatzeko, zentroaren hezkuntza-proiektuaren esparruan.

2. artikulua. – Onuradunak

1. Deialdi honetako zuzkiduren onuradun izan daitezke Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoak, baimena dutenak Euskal Autonomia Erkidegoan Haur Hezkuntzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Batxilergoa emateko.
2. Ikastetxe publiko integratuak (IPI), ikastetxe osoari eragiten dioten proiektuak aurkezten dituzten heinean, bereizitaz hartuko dira deialdi honi lotutako baliabide-zuzkidurari dagokionez.

3. artikulua.– Zuzkidura ekonomikoa eta emate-prozedura

1. Helburu hori lortzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partiden kontura, hauek baliatuko dira: 500.000,00 euroko zuzkidura ekonomikoa.
2. Kopuru hori honela geratzen da banakaturik:
 - a) 1. artikuluko A modalitaterako, aurreikusitako zuzkidura ekonomikoaren % 50a.
 - b) 1. artikuluko B modalitaterako, aurreikusitako zuzkidura ekonomikoaren % 50a.
3. Proiektu-modalitate bakoitzari egingo zaio dagokion adjudikazio-prozedura, zeinean lehiaketa-prozeduraren bitartez emango diren zuzkidurak. Aurkeztutako eskabideak konparatuko dira, lehentasunak finkatzeko, eta horretarako,



IV. eranskinen balorazio-baremoa hartuko da kontuan. Honako hauek soilik hornituko dira diruz, betiere, agindu honek ezartzen duen gehieneko zenbatekoa kontuan hartuta: 13. artikulua ezartzen duen gutxieneko puntu-kopurua lortzen dutenen artean puntu gehien eskuratzen dituztenak. Balorazio-fasean lortutako puntuazioari jarraituko zaio, goitik beherako ordenan, onuradunen gehieneko muga bete arte edo, hala egokitzen denean, dagokion prozedurari esleitutako diru-kopurua agortu arte. Berdinketarik izanez gero, lehentasuna emango zaio ikasle bekadunen ehunekorik handiena duen ikastetxeari.

4. Lehenengo, A modalitateari dagozkion prozedurak ebatziko dira. Esleitutako zuzkidura ekonomikoa agortzen ez bada, soberakina B modalitateko proiektuetarako zuzkidurari gehituko zaio. Bigarrenik, B modalitateko proiektuei dagozkien prozedurak ebatziko dira. Esleitutako zuzkidura ekonomikoa agortu ez bada eta A modalitateko proiekturik badago finantzaketarik lortu ez duena proiektu horientzako zuzkidura agortu delako, soberakina A modalitateko proiektuetarako zuzkidurari gehituko zaio.

4. artikulua.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta laguntzen zenbatekoa

1. Ikastetxe bakoitzak deialdi honen 1. artikuluan adierazten diren proiektu-modalitateetako baterako bakarrik eskatu eta jaso ahal izango du finantzaketa deialdi honen kontura.
2. Ematen diren zuzkidurak hauetarako bakarrik erabiliko dira: proiektuei buruzko prestakuntzarekin zuzenean zerikusia duten gastuei aurre egiteko, hala nola hizlarien kontratazioa, proiektuari lotutako jarduerak eta prestakuntzari laguntzeko materiala erostea.
3. Ikastetxe bakoitzari ematen zaion zuzkidura ekonomikoen zenbateko osoak hizkuntza-proiektuen bi modalitateetarako sartu diren jardueren guztizko kostua estali ahal izango du. Gehienez ere, 100 euro ordainduko dira proiektuan jasotako prestakuntza-jarduera bakoitzean emandako ordu bakoitzeko. Jarduera emateari egotzitako gastu gisara zenbatu ahaliko dira honako hauek: batetik, prestakuntza-jardueraren kostua, prestakuntza ematen duen erakundeak aurkeztutako aurrekontuaren arabera; eta, bestetik, ikastaroa emango duen irakaslearen joan-etorriek, ostatu hartzeak eta otorduek eragindako gastuak, baldin eta prestakuntza-erakundeaz kanpokoa bada eta prestakuntza-saio horiek beharrezkotzat jotzen badira. Inolaz ere ez dira prestakuntza-jardueraren kostutzat joko jardueran parte hartzen duten irakasleen joan-etorrietarako edo jan-edanetarako gastuak.
4. Deialdi honi lotutako prestakuntza-jarduerak 10 orduko iraupena izan beharko dute gutxienez, eta 60 ordukoa gehienez.
5. Ikastetxe bakoitzeko gehieneko laguntza inoiz ez da 5.000,00 eurotik gorakoa izango A modalitateko proiektuetarako, ez eta 7.000,00 eurotik gorakoa ere B modalitatekoetarako, proiektuari egotzitako gastu guztiak kontuan hartuta.

5. artikulua.- Prestakuntzaren ezaugarriak

- 1.- Deialdi honek diruz lagunduko du ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzeko berrikuntza-proiektuei lotutako irakasleen prestakuntza. Prestakuntza nahitaezkoa izango da, eta eremu horretan eskumena duten hezkuntzarako laguntza-zerbitzuen aholkularitza eta prestakuntza eskainiko da.
- 2.- A eta B modalitateetarako, deialdi honetan proposatzen den prestakuntza-ereduak ikuspegi didaktiko metodologiko bati erantzun behar dio, irakasleek, metodologia aktibo eta berritzaileen bidez, beti ere curriculum berriari lotuta, hizkuntzen tratamendu integratua eta integrala landu dezaten eta ikasleen komunikazio-kompetentzia garatzeko bide eman dezaten.
- 3.- A modalitatetik kanpo geratzen da irakasleek atzerriko hizkuntzan duten hizkuntza-kompetentzia hobetzeko prestakuntza oro.



4.- B modalitatean, proposatzen den prestakuntza-eredua irakasleen **metodologia eguneratzera bideratuta dago** eta gutxienez, hizkuntzaz besteko arlo, jakintzagai edo gai bat atzerriko hizkuntzan eman behar da. Beraz baita ere, modalitate honetan proposatzen den prestakuntza-ereduak barne hartzen du ere irakasleek atzerriko hizkuntzan komunikatzeko duten konpetentzia hobetzea. Prestakuntza horretarako, Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuko B1 mailatik B2 mailara, eta B2 mailatik C1 mailara igarotzeko diru-zuzkidurak emango dira, gutxienez, 50 ordurekin, 3 urteko epean ziurtagiria lortzeko

5.- Deialdi honetatik kanpo geratzen da Europako erreferentzia-esparru komuneko B2 eta C1 mailetatik beherako atzerriko hizkuntzako hizkuntza-konpetentzia hobetzeko prestakuntza, baldin eta helburua ez bada irakasleek curriculum-ikasgaiak atzerriko hizkuntzan emateko behar besteko ziurtagiria (B2 edo C1) lortzea ezarritako epean. Beheragoko mailetak hizkuntza-prestakuntzarako, interesa duten irakasleek Hizkuntza Eskola Ofizialen egitura erabili ahal izango dute (irakasleek lehentasuna dute horietan matrikulatzeko).

6.- Bi modalitateetarako dirulaguntza jaso dezakeen prestakuntzak eduki hauek izan ditzake:

- Hizkuntza-interdependentziaren printzipioa eta hizkuntzen tratamendu integratua curriculumean.
- Alfabetatze aniztunak.
- Hizkuntzaz jabetzeko prozesua: Atzerriko hizkuntza bat goiz sartzea.
- Hizkuntzaren tratamendua curriculumaren arlo eta eremuetan: trebetasun kognitibo-linguistikoa.
- CLIL (Edukien eta Atzerriko Hizkuntzen Ikaskuntza Integratua) eta Pluriliteracies.
- Curriculum berriaren jarraibideekin bat datozen curriculum-material berritzaileak sortzea.
- Komunikazio eleaniztuneko konpetentziak garatzea, curriculum berriaren jarraibideen arabera.
- Komunikazio eleaniztuneko konpetentzia ebaluatzea.
- Komunikazio-konpetentzia garatzen landuko duten metodologia aktiboak.
- Proposamen eta tresna digitalak aplikatzea eta sortzea hizkuntzen ikaskuntzan.
- Gelan proposamen pedagogiko berritzaileak ezartzea, hizkuntza-trebetasunak eta eleaniztasun-konpetentzia garatzeko.

Proposamenak garatzeko, eremu horretan eskumena duen hezkuntzarako laguntza-zerbitzuko taldearen aholkularitza eskainiko da.

7.- Aurreko puntuan deskribatutako prestakuntza-jarduera horietan, proiektuan parte hartzen duten irakasleen % 80k parte hartu beharko du. Proiektua osatzen duten irakasleen prestakuntza-jarduera guztiek gutxienezko irakasle-talde bat eduki behar dute prestakuntzan inplikaturik, proiektuaren jarraipena bermatzeko, nahiz eta taldekideren bat aldatu. Salbuespen gisa, banakako jarduerak sartu ahal izango dira, baldin eta behar bezala justifikaturik badaude (ikastetxean izango duen inpaktuari begira) eta prestakuntza horren onuradunek ikastetxean jarraitzeko aukera izango badute.

6. artikulua.- Ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzeko berrikuntza-proiektuen ezaugarriak.

1. Ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzeko berrikuntza-proiektuek, bi modalitateetatik edozeinetakoak direla, **atal hauek eduki beharko dituzte** (II. eta III. eranskinak, modalitatearen arabera):

- **Diagnostikoa**, hauek hartuko dituena
 - o Barneko eta kanpoko ebaluazioetatik datozen euskarazko, gaztelaniazko eta atzerriko hizkuntzetako ikasleen emaitzen azterketatik eratorriko hobekuntza-eremuak.
 - o Hobekuntza-esparruak, diagnostikoaren ondorioetatik abiatuta.



HEZKUNTZA SAILA
Hezkuntza Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Educación

- Hobekuntza-eremuak, Eleaniztasunerantz 2022-2023 proiektua inplementatzean izandako behaketatik eta ikaskuntzatik ondorioztatutakoak, ikasturte honetan proiektua garatzen ari diren ikastetxeen kasuan.
 - Hobekuntza-esparruak daudela egiaztatzen duten beste ebidentzia batzuk.
 - Ikastetxeak egindako ibilbidea hizkuntzekin zerikusia duten esperientzian.
- Ikasturtean barrena garatu beharreko **proiektuaren helburuak**, ikasleen aniztasuna eta egindako diagnostikoa kontuan hartuta.
- **Hartzaileak eta ekintzak jasotzen duen plangintza:**
- a) **Hartzaileak**, proiektuan parte hartzen dutenak:
 - Ikastetxeko ikasle-taldean eta -mailen guztizko kopurua.
 - Proiektuan parte hartzen duten ikasleen talde eta hezkuntza-maila guztiak.
 - Proiektuan parte hartzen duten irakasleen kopurua. B modalitateari dagokionez, proiektuaren garapenean parte hartuko duten plantillako irakasleen kopurua, aurreikusita, halaber, ikastetxeak, proiektua ezartzearen ondorioz, zer beharizan izango duen edukiak atzerriko hizkuntza batean emateko konpetentzia egiaztatua duen pertsonalari dagokionez, kontuan hartu dadin ikastetxeko lanpostu-zerrenda prestatzerakoan.
 - b) Proiektuan aurreikusitako **ekintzak**. Helburu estrategikoetan oinarrituta. **Plangintza eta gauzatze-egutegia** eta proiektuaren garapena bermatzeko beharrezkoak diren asteko koordinazio-saioen kopurua barne.
- Irakasleentzat aurreikusitako prestakuntza-ekintzen **aurrekontua**.

2. B modalitateko berrikuntza-proiektuen kasuan, zehaztu egin beharko da hizkuntzez kanpoko zer gai emango den (edo emango diren) atzerriko hizkuntzan, bai eta zenbat ordu izango dituen atzerriko hizkuntzak eta zenbat ordu emango diren atzerriko hizkuntzan.

- Atzerriko hizkuntzan irakatsiko diren irakasgaiak aukeratzeko orduan, irakasleek kontuan hartuko dute hau: ikasle-talde baten barruan, atzerriko hizkuntzan emandako ordu-kopurua berdina izatea denentzat, zein arlo edo irakasgai aukeratzeko dituzten kontuan izan gabe. Lehen Hezkuntzan, gutxienez, 4,5 ordu emango dira asteen, eta 5 ordu asteen, Bigarren Hezkuntzan.
- Euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntzan emandako ordu kopuruari eta irakasgaiari dagokionez, adieraziko da zein den hasierako egoera eta zer garapen aurreikusten den bi urteetan, halako moldez non, ekitatearen mesedetan, ikastetxeko maila guztiak hartuko dituen, arian-arian.
- Garapen horrek kontuan hartuko du ikastetxearen egoera soziolinguistikoa, eta ezingo du ekarri A eta B ereduetan euskaraz irakatsi beharreko ordu kopurua txikiagoa izatea. Adierazi beharko da, talde bakoitzari dagokionez, zein irakasgaiari eta zein irakats-hizkuntzari kenduko zaizkion orduak edukiak atzerriko hizkuntzan emateko.

3. Hezkuntza Sailak ikastetxeen eskura jarri ditu ikastetxearen hizkuntza-proiektua diseinatzeko laguntza-gidak, esteka hau: <https://labur.eus/hizkuntzaproiektua>. Gainera, Irakurketa-plana egiten laguntzeko hainbat baliabide eta orientabide daude web-orri honetan: <https://irakurgune.euskadi.eus/eu/inicio>

4. Halaber, deialdi honen babesean ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzeko zuzkidura ekonomikoak jasoko dituzten ikastetxeek, Hezkuntza Sailaren esku jarri beharko dituzte honako hauek: bere proiektuaren barruan prestatu dituzten material, unitate didaktiko eta tresnak. Egokitzen bada, IRAKURGUNEA edo AMARAUNA plataformara igoko dira.



7. artikulua.– Betekizunak

Betekizun hauek bete beharko dituzte eskari guztiek:

- a) Diseinatutako **proiektua** gutxienez bi ikasturtekoa izango da. Laguntza eskatzen duten **lan-plana 2023/2024** ikasturterako da. Plan horretan, 6. artikuluko lehenengo paragrafoan ezarritako edukiak jaso behar dira. Proiektuaren iraupena bi ikasturtekoa izan arren, emandako laguntzak eta laguntzak beti dira urtekoak; beraz, ikastetxearen proiektua behar bezala garatzeko, laguntza horiek hurrengo ikasturteetan izatea ezinbestekoa bada, hurrengo deialdietan jarraitzeko eskaera bete behar da.
- b) Ordezkaritza Organo Gorenaren (OOG) onespena izatea proiektua gauzatzeko, eta akordio hori Ikastetxeko Urteko Planean jasotzea.
- c) Ikastetxeko Hizkuntza-proiektua izatea eta haren barruan Irakurketa-plana onartuta eta eguneratuta edukitzea. (Erantsi dokumentua eskaerari).
- d) Koordinatzaile bat izendatzea, proiektuaren jarraipena egin dezan.
- e) Proiektuarekin lotutako prestakuntzan parte hartzeko konpromisoa bereganatzen duen gutxieneko langile kopuru bat izatea, proiektua egin egingo dela ziurtatze aldera. Proiektuan inplikaturako irakasleen % 80k parte hartu behar du, gutxienez.
- f) Lehen aldiz parte hartzen duten ikastetxeek edo bi urteko zikloa amaituta berriro aurkezten direnek konpromisoa hartu beharko dute proposatutako proiektuan gutxienez bi urtez parte hartzeko.
- g) Proiektuaren bigarren urtean parte hartzen duten ikastetxeek lan-plan eguneratua aurkeztu beharko dute, aurreko proiektuaren ebaluazioa egin ondoren. Plan horretan, ezarritako helburuak lortzen lagunduko duten hobekuntza-proposamenak jasoko dira.

8. artikulua.- Ziurtagiriak

Prestakuntza-jardueretan parte hartzen duen irakasle bakoitzaren parte-hartzeak prestakuntza garatzeko eta proiektua gauzatzeko ezarritako orduen % 80 gainditzen badu eta proiektuaren gauzate-memoriak balorazio positiboa jasotzen badu, parte-hartzaile bakoitzari ofizioz eta banaka ziurtatuko zaizkio ezarritako orduak: 30 ordu. Hala ere, ikastetxe batek ikasturte berean proiektu-deialdi batean baino gehiagotan parte har dezakeenez, inoiz ez zaio irakasle berari emango 90 ordu baino gehiagoren ziurtagiririk Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzako deialdien barruan egindako prestakuntza-proiektuengatik.

9. artikulua.- Giza baliabideak eta laguntzak

1. Ikastetxeko zuzendaritza-taldeari dagokio proiektua abian jartzen dela zaintzea. Koordinazio-lana irakasle baten esku utziko da, eta hark proiektuaren garapenaren berri emango dio aldizka ikasketa-burutzari.
2. Ikastetxeak, bere burua antolatzeko autonomiaren barruan, koordinatzaileen eskola-orduak egokitu ahal izango ditu, hala kopuruari nola banaketari dagokienez, proiektuan duten funtzioarekin bateragarri egiteko; betiere, kasuan kasuko ikasketen ikasturte-hasierako zirkularretan jasotako araudia beteta eta ikastetxearen ordutegi-aukeren arabera.
3. Ikastetxeek, deialdi honi lotuta proiekturen bat onartzen zaienean, eremu horretan eskumena duen hezkuntzarako



laguntza-zerbitzuen aholkularitza izango dute, onartutako proiektuaren prestakuntza-jarduerak, jarraipena eta ebaluazioa egiteko ikastetxean proiektuaren koordinatzaile izendatutako pertsonarekin batera.

4. Deialdi honen babesean hizkuntza-proiektuak garatzen dituzten ikastetxe onuradunek lehentasuna izango dute 2023-2024 ikasturtean mintzapraktikako laguntzaileak esleitzeko. Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren ebazpenean zehaztuko dira lehentasunak.

5. 2023-2024 ikasturterako B modalitatean onartutako hizkuntza-proiektua duten ikastetxeek lehentasuna izango dute Hezkuntza Sailak ikasleen artean atzerriko hizkuntzaren ezagutza eta erabilera finkatzeko egiten dituen deialdietan, haietan ezarritakoaren arabera.

6. Ikastetxeek 2023-2024 ikasturterako onartutako B modalitateko hizkuntza-proiektua badute eta curriculumeko irakasgaietako bat atzerriko hizkuntza batean ematen badute, ikastetxe horietako irakasleek lehentasuna izango dute Hezkuntza Sailak atzerriko prestakuntza-ikastaroetarako deitzen dituen deialdietan, atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzako eta ikaskuntzako ezagutza didaktikoak eta metodologikoak hobetzeko, betiere deialdietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten heinean.

7. Deialdi honen babesean emandako baliabide pertsonal eta laguntza guztiak urtekoak dira.

10. artikulua.- Eskabideak aurkeztea

1. Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2023ko martxoaren 31n bukatuko da. Eskaria modu elektronikoan aurkeztuko da, eskabide normalizatu bidez, datu guztiak behar den moduan beteta. Eskabide-eredua euskadi.eus webguneko egoitza elektronikoa honetan egongo da eskuragarri: <https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/eleaniztasunerantz-2023>

2. Eskabidea guztiz osatuta ez badago, errekerimendua egingo zaio eskaria aurkeztu duen ikastetxeari, hamar egun naturaleko epean bete dezan falta dena edo nahitaezko dokumentuak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, bere eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

11. artikulua.- Organo kudeatzailea

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak kudeatuko du deialdi honetan aurreikusitako zuzkidura ekonomikoak esleitzeko prozedura.

12. artikulua.- Eskari-aukeraketarako batzordea.

Batzorde batek egingo du onartutako eskarien aukeraketa. Batzorde horrek kide hauek izango ditu:

- Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzako Irakasleen Etengabeko Ikaskuntzako eta Hobekuntzako Zerbitzuko arduraduna, batzordeburu.
- Hezkuntzarako laguntza-zerbitzuko bi aholkulari edo hizkuntza-arloko aditu.
- Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak izendatutako bi teknikari. Horietako batek idazkari lanak egingo ditu.

13. artikulua.- Eskariak aukeratzeko prozedura

1. Honela egingo da proiektuen aukeraketa: eskariak baloratzeko baremoaren arabera, IV. eranskinean baitago.



2. Kanpoan geratuko dira betekizunak betetzen ez dituzten eskariak, bai eta hauek ere: lan-planaren balorazioaren arabera (IV. eranskineko 1.1 apartatua) gutxienez 9 puntura iristen ez diren proiektuenak.

3. Eskariak egokiro baloratzeko, ebaluazio-batzordeak ikastetxeek aurkeztutako proiektuei buruzko txostenak eskatu ahal izango dizkio hezkuntzarako laguntza-zerbitzuari.

4. Ebaluazio-batzordeak egingo ditu ebazpen-proposamenak, eta Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariari helaraziko dizkio. Proposamen horietan hauek sartuko dira: aukeratutako proiektuen zerrenda, eta proiektu bakoitzarentzat proposatzen den zuzkidura ekonomikoa. Gainera, kanpoan utzitako eskabideen zerrenda sartuko da, kanpoan uzteko arrazoiak aipatuta.

14. artikulua.- Ebazpena

1. Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariari dagokio eskariak ebaztea, ebaluazio-batzordeak proposatuta. Ebazpena elektronikoki jakinaraziko zaie interesdunei, eta onartutako eskariak jasoko ditu, eta bakoitzari emandako zuzkidura ere adieraziko du. Gainera, kanpoan utzitako eskabideen zerrenda sartuko da, kanpoan uzteko arrazoiak aipatuta.

2. Hamar egun naturaleko epea ezartzen da, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrerakoa, ikastetxe interesdunek erreklamazioak aurkez ditzaten ebazpenaren aurka. Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariak ebatziko ditu erreklamazioak.

3. Erreklamazioak aztertu ondoren, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariak behin betiko ebazpena emango du, eta ikastetxeei jakinaraziko die aurreko apartatuan aipatutako bideak erabiliz. Ebazpenak jasoko du, batetik, aukeratutako ikastetxeen zerrenda (emandako zuzkidura ekonomikoa), eta, bestetik, ezezkoa eman zaien eskaeren zerrenda, arrazoiak aipatuta.

4. Prozedura ebazteko epea amaitu eta ebazpena jakinarazten ez bada, eskaria ezetsi zaiela jo dezakete interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1. artikulua onorioetarako.

15. artikulua.- Zuzkiduren bateraezintasuna

Zuzkidura ekonomiko hauek bateraezinak dira helburu bererako beste edozein laguntza eskuratzearekin, berdin dio funts publikoetatik zein pribatuetatik datorren.

16. artikulua.- Zuzkidurak ordaintzea.

Zuzkidura bi zatitan ordainduko da. Honako aurreikuspen hauen arabera izango dira ordainketa horiek:

- a) Lehenengo ordainketa emandako zenbateko osoaren % 50 izango da, eta deialdiari buruzko ebazpena jakinarazi eta hilabeteko epean egingo da, tartean laguntzari berariaz uko egin ezean.
- b) Bigarrenak gainerako zenbatekoa hartuko du, eta ikasturtearen amaieran egingo da, aurkeztuko den justifikazio dokumentazioa aztertu eta proiektuaren memoriak balorazio positiboa jaso ondoren.

17. artikulua.- Aukeratutako ikastetxeen berariazko betebeharrak:

Honako hauek bete beharko dituzte, edozein kasutan, deialdi honetako zuzkiduren onuradun diren ikastetxeek:

- Eman zaien laguntza onartzea eta, laguntza zertarako eman den, bada, horretarako erabiltzea zehazki. Ildo



horretatik, hamar eguneko epean —deialdiaren ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera— ikastetxe onuradunek berriaz eta idatziz laguntzari uko egiten ez badiote, onartutzat joko da.

- Zuzkidura emateko kontuan hartutako edozein inguruabar aldatuz gero, horren berri ematea Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzari.
- Aholkularitza- eta jarraipen-lanetan lankidetzan aritzea eremu horretan eskumena duen edo hezkuntzarako laguntza-zerbitzuarekin, Hezkuntzako Ikuskaritzarekin eta Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzarekin.
- Klaustrorako prestakuntza-jarduerak antolatzea, eta B modalitateko proiektuak garatuko dituzten ikastetxeen kasuan, eremu horretan eskumena duen edo hezkuntzarako laguntza-zerbitzuak antolatutako berriazko prestakuntza-jardueretan parte hartzea.
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak beren funtzioetan dihardutela eskatutako informazio guztia ematea, deialdi honen kontura jasotako zuzkidura ekonomikoak direla eta.
- Eskatutako modalitateko berrikuntza-proiektua garatzea hizkuntza-proiektua gauzatzeko aldera aurkeztutako eskariaren arabera, eta, ikasturtearen amaieran, dagokion memoria egitea, 2023ko ekainaren 15a baino lehen entregatuko baita. Memoria horretan zehaztuko dira praktika didaktikoari eta hizkuntzen tratamenduaren hobekuntzari buruzko erabaki guztiak, eta urteko planean sartuko dira, eta zuzeneko eragina izango dute programazioetan.
- Zuzkidura ekonomikoa jaso duten ikastetxeak lankidetzan ariko dira Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzarekin eta unibertsitateekin, eta praktiketako ikasleak onartuko dituzte (Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduatukoak, baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleak Prestatzeko Unibertsitate Masterrekoak ere), etorkizuneko irakasleak ikastetxe berritzaileetako benetako hezkuntza-praktiketan integra daitezela laguntzeko.
- Konpromisoa hartzea proiektuen garapenean ikasitakoa hezkuntza-komunitate osoari helarazteko prestakuntza-saio, jardunaldi edo ikastaroen bitartez, gaitzat hartuta hizkuntza-proiektuaren garapena, hizkuntzen tratamendu integratua eta integrala eta proiektu eleaniztunak.
- Eremu horretan eskumena duen hezkuntzarako laguntza-zerbitzuaren esku jartzea deialdi honen babesean egindako materiala edo sortutako ikas egoerak, IRAKURGUNEAn eta AMARAUNAn partekatzeak, hala badagokio.
- Arlo honetan eskumena duen hezkuntzarako laguntza-zerbitzuak antolatzen dituen eta derrigorrezkotzat jotzen diren hizkuntzen mintegietan edo proiektuetan parte hartzea.

18. artikulua.- Laguntzen justifikazioa

1. Proiektu-modalitatearen bat onartu zaien ikastetxeek proiektuaren garapenari eta ebaluazioari buruzko memoria aurkeztuko dute 2024ko ekainaren 15a baino lehen. Memoria eta erantsitako dokumentazio guztia bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, ikastetxe publikoentzako atariaren bidez: "Herri-ikastetxeak/Deialdiak" (<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/>). Horretarako, aplikazio horretan ezarritako inprimaki guztiak osatuko dituzte (VIII. eranskina).
2. Memoriak barnean hartu beharko ditu jardueren zerrenda eta haien garapena (edukia, zenbatek hartu duen parte, noraino bete diren proposatutako helburuak).
3. Era berean, hauek zehaztuko ditu memoriak: proiektuan zehar zer erabaki hartu den, eta martxan jarri, praktika didaktikoari eta ebaluazioari buruz.
4. Prestakuntza-jardueren kostua zein izan den adieraziko da, jarduera horiek entitate pribatuek eman badituzte, bai eta proiektuari lotutako jarduerak egiteak edo prestakuntzari laguntzeko materiala erostek zenbateko



kostua izan duen ere. Ikastetxeak gorde egingo ditu egindako gastuaren egiaztagiriak, Administrazioak dokumentazio hori eskatzen badio ere.

5. Memoriak horrek, gainera, barnean hartuko du ikastetxe bakoitzeko zuzendaritzaren ziurtagiri bat, dagozkion irakasleen parte-hartzeari buruzkoa, beren-beregi adieraziko duena guztira egindako orduen zer ehunekotan parte hartu duen irakasle bakoitzak.
6. Hezkuntza-administrazioak frogagiriak, fakturak edo agiriak eskatu ahal izango dizkio erakunde onuradunari, emandako laguntzaren kontura egindako gastuen egiaztagarri. Laguntzak justifikatzeko ez dira kontuan hartuko proiektuaren prestaketa, koordinazio- eta jarraipen-lanekin lotutako gastuak.

19. artikulua.- Jarraipena eta ebaluazioa

1. Eremu horretan eskumena duen hezkuntzarako laguntza-zerbitzuaren aholkulariak, proiektua koordinatzeko ardura duen pertsonarekin eta ikastetxeko Hizkuntza Batzordearekin batera —halakorik bada—, proiektuaren garapenaren autoebaluazioa egingo du, gutxienez bi unetan, ikasturtean zehar. Horretarako, IX. eranskineko txantiloia erabiliko da. Lortutako informazioarekin hezkuntzarako laguntza-zerbitzuak txosten bat egingo du, eta Etengabeko Irakaskuntza eta Irakasleen Hobekuntzarako Zerbitzuari eta dagozkion berrikuntzaren lurralde burutzari bidaliko die.
2. Ikasturtean zehar gorabehera esanguratsurik gertatuz gero proiektuen garapenean, eremu horretan eskumena duen hezkuntzarako laguntza-zerbitzuaren zuzendaritzak Lurralde Burutzari eta Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzari emango die horren berri, bigarren zuzendaritza horrek neurri egokiak har ditzan deialdi hau behar bezala bete dadin.
3. Hezkuntzako Ikuskaritzak, ikastetxeetara egiten dituen bisitaldietan, proiektuak zenbateraino betetzen diren kontrolatuko du —proiektuok ikastetxeko urteko planean jasota egon behar dute—. Ez-betetzetik ikusiz gero, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzari jakinaraziko dio.

20. artikulua.- Ez-betetzeak

1. Edozein ez-betetze egiaztatuz gero zuzkidura ekonomikoa ematea eragin zuten baldintzetan, jasotako zenbatekoak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharra sortuko da.
2. Dirua itzuli beharko da hauetakoren bat gertatuz gero:
 - a) Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak jakitea zuzkiduraren xedeko proiektuak ez direla gauzatu edo ez direla iritsi diseinatzerakoan aurreikusitako gutxienerako gauzatze-mailara.
